

2009ko martxoan Berriari Lakarrak eta Gorrochateguik emandako gutuna jarri dugu hemen. Bertan, bi hizkuntzalari hauek ziotenez, Henrikerentzat ostrakak faltsuak ziren. Irakur dezagun arretaz Henrikek idatzitakoa:

Iruña-Veleiako euskal idazkunen datazioen inguruan

Argi dago Iruña-Veleian 2006az geroztik aurkituriko idazkUNETAKO zenbaitek, behintzat, harritura utzi dituela ikastunak. Alde batera utzirik idazkun horietako bestelako mota bat, euskal hitzak dituztenek ezusteko ezaugarriak ageri dituzte, eta, are gehiago, arkeologoen eta haien talde laguntzaileek orain arte iradokitako datazioei jaramon egitera. Argi eta garbi esateko, euskal hizkuntzaren historiaren ikuspegitik, ez liteke inolaz ere pentsa K.o. III. mendekoak direnik, esate baterako, arrain hitza dakarten testuak; horren ordez, *arrani eta arrapi hitzak lirakeke espero izatekoak, lotura erromaniko nabarmenekoak - azken batean, latineko rapio-tik eratorriak, jakina-.

Beti ere, zientzialariek eta stratigrafiako adituek esaten dutenaren zain, historiara jo beharra daukagu ezinbestean. Eta historiak diosku izan bazela apezpikutegi bat Araban, gutxienez IX. mendearen erdialdeaz geroztik. Alvaro zen apezpikua, eta 881. urtekoa da dokumentua. Guk dakigula, orain arte inork ez du auzitan jarri apezpikutegiaren kontua. Eta, itxura guztien arabera, Veleian egon zen.

Ez da alferrik behin baino gehiagotan aipatu izan episcopus veleiensis. Eta gogora dezagun berantiarra dela, oso, Armentiaiko egoitza; berantiarra, eta laburra -azkeneko indusketak etsigarriak izan baitira-. Araban izandako azken hiru apezpikuak -Vela, Munio IV.a eta Fortunio- bakarrik jo daitezke Armentiaiko apezpikutegian erroldatutakotzat. Becerro de Irache dokumentuaren arabera, 1602an ageri da lehenbizikoz Armentiaiko apezpikutegiaren aipua, San Romango Zorraquino abadeak Santa Engrazia monasterioa - Veremundo buru zuena- Iratxeri dohaintzan eman ziolarik. Eta hurrengo, Calahorrara lekualdatu zuten.

Guk dakigula, ez dute basilikarik aurkitu Veleian, baina litekeena da oro. Iruñako Santa Mariaren lekuan bertan ote zegoen? Litekeena da, oso. Uste izatekoa da jarraitutasun halako bat egon zela Iruña-Veleiatik «Armentiaiko» garairaino, klerigoen elkarteren bati esker -milites edo borrokalari eta guzti, beharbada-; horrek azalduko luke Iruña ez aipatu ere egitea Donemiliagako kartularioan. Hain zuzen ere, geroago ezarri zuten San Joanen ordena militarra.

Jarraitutasun horrek azalduko luke, halaber, euskal hitzen itxura «modernoak», hala nola arestian aipaturikoak eta corduniai delakoa -zeina debitoribus baita, ez bairik gabe, gure lan bileran proposatu nuen bezala-.

Latineko idazkunei dagokienez, lehen adierazitakoa baieztatu dezaket pontifex hitzari buruz. Clermonteko Sidonius apezpikua (V. mendea) baino lehenago, bazerabilten Pontifex Maximus izendapena, bai adiera ironikoz bai berezko adieraz; hala ageri da, 200. urte inguruan, Tertulianoaren testu ugarian miatuz gero.

Henrike Knörr.

Oharrak

•Mezu hau Henrike Knörrrek posta elektronikoz bidali zien lankideei zituen Lakarra eta Gorrochateguri baina ez zioten erantzun, nahiz eta Henrike hilzorian zegoen.

- Lakarrak eta Gorrochateguik gutun hau Berrian aurkeztu zutenenean, esan zuten Knörrentzat ere faltsutzat zirela baina gutuna ondo irakurrita ikusi daitekeenez, bere iritzia argi zegoen: ostrakak III-V. mende bitartekoak ezin ziren izan baina bai ordea VI-IX mende bitartekoak, Iruñan San Joan Monastegia egon izanaren frogak bazeudelako. Henrikerentzat Eliseo Gil ez zen faltsifikatzailea!, gehienez arkeologo txarra, estratoz erratzeagatik.
- Gutun hau, beraz, ostraken egiazkotasuna defendatzen duten gainerako 23 txosten, irizpen eta gutunekin batera jartzea logikoa da.

